

Mirande eta Gandiaga, sinesmen eredu bi

Jon Mentxakatorre Odriozola

Deustuko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko
hizkuntza antropologiako irakaslea

Entzutea arimaren jarrera sakona da.

Joxe Azurmendi

XX.-XXI. mendeetako euskal gizartearen sekularizazioan, sinesmenak aldaketa handia jasan du. Gaia hainbat ikuspegitik aztertzeke aukera eta eginkizuna izan dutenen artean, Joxe Azurmendi nabari da, haren lanek Euskal Herria atzerritik eta bertatik, sakristiatik eta plazatik, unibertsitatetik eta kaletik aztertu duela erakusten baitute. Testu honen helburua Azurmendik aurkeztutako eredu bi aztertzea da, Jon Mirande (1925-1972) eta Bitoriano Gandiaga (1928-2001), Euskal Herriaren sekularizazio prozesuaren markoan jarrita.

Lehenbizi, euskal pentsamenduaren modernizazioari Azurmendik eginiko ekarpen nagusia aurkeztuko da: gizaberea, haren lan osoa ardatzen duena. Mirande eta Gandiagaz idatzitako testuak hari horren bidez josteak filosofoak poeta bien pentsamenduei non, noiz eta zer heldu dien erakutsiko du. Zehatz-mehatz aztergai izango diren lanak honakoak dira: Miranderi dagokionez, *Mirande eta kristautasuna* (1978) eta *Schopenhauer, Nietzsche eta Spengler Miranderen pentsamenduan* (1989a),¹ batez ere; Gandiagari dagokionez, *Azken egunak Gandiagarekin* (2009) eta *Adio-ri* (2004) eginiko hitzaurrea.

Behin lanaren gai eta eremua mugatuta, Azurmendik egile bien zer irudi eman duen aztertuko da, sinesmenaren arloari helduz.² Horrekin, beraz, ez da Mirande eta Gandiagaren lanen erabateko azterketarik egingo, Azurmendik haien lanen baitatik aurkeztutako ereduena baizik. Azkenik, eredu horiek non kontrajartzen diren edo bat datozen –kristautasunaren atarian, kanpora so bata, barnera begira bestea– eta nora eramán dezaketzen aztertzeke bideak zabalik utziko dira.

Gizaberea, sekularizazioaren ondorio

Sekularizazioa erlijioaren eta haren instituzioen atzaparretatik aldentzea baino gehiago da: edozein jakintza eta jardun eremu lurraren maila xumera jaitea da, ikuspegi autonomo eta horizontalera mugatu eta oinarrituz. Horren ondorio zuzen, esaterako,

soziologia da. Gizartea berezkoa, lehenik eta behinekoa, apriorizkoa, dela onartzean, gizartea ikergai daukan ikerlerroa agertu zen. Horrentzat, erlijioa, hizkuntza, politika... bigarrenaz datoz gutxienez eta ezinbestean, eta aurrekoari atxikitzen zaizkie. Gizartea gizarte huts da, gara dezakeen eremu orotatik aldenduta, oinarri-oinarrian –antzinatego gizartea ikertzean akats egiten badu, beste eremu bateko gai eta eztabaida da–. Labur esanda: sekularizazioak, eremua edozein dela, kontzientzia lurraren mailan jartzen du. Eta horretaz, hala ulertuta, Euskal Herrian gutxi hausnartu da.

Erligioaren atzerakada ikertu bada ere, hari emandako indarra beste arlo batzuetara nola eraman den aztertu bada ere, batetik besterako ibilbidean gertatutako aldaketa, krisi eta sintesiaz ez da ezer aipagarriarik esan. Hau da, hizpide duen ororen ortzimuga edo handitasuna estutzean, ez da arakatu zein izan den, aldatu bitartean, euskaldunak jarrera eta izaeran jasandako eragina.³ Izan ere, norberaren buruari Jaungoikoaren artelan edo zoriaren emaitza itsu iriztearen artean ardura handiena daukana batetik besterako gogoeta bera da, eta Euskal Herri zabalari dagokionez ez da egin. Banako askoren bizipenek oraindik izenik ez daukate, eta ateismo fededuna, fede eszeptikoa, transzendentziaren axolagabekeria edo sinesmen hotz-hotza zer diren ez dago argi, hitzetara taldean ez direlako eraman. Baina, gizartearen norantza ondo ezaguna ez bada ere, banako gutxirena bai, bada. Horietan bat Azurmendi da.

Azurmendik, euskaraz idatziz, Euskal Herriari liburutegia eskaini dio. Horren bidez gauza handi bi egin ditu: euskal gogoeta garaiko pentsamenduarekin uztartu, eta euskal pentsalari esanguratsuen izena nabarmendu. Era batera esanda: ondare zahar eta eraikuntza berriaren azterketaz, euskal kultura sendotu, Mendebala postmodernitatearentz zihola eta Euskal Herrira sekularizazioa etorri berritan zegoela. Azurmendiren lan eta ereduak lerro horren gainean daude; izan ere, hasieratik orainera haren obra lotzen duen lerro nagusia, besteen ekarpenak elkarrizketan jartzen dituen, gizaberearena da:⁴ sekularizazioaren barneko filosofia eta zientzietatik egindako gizakiaren irakurketa; hots, gizakiaz sintesi berria aurkezten duen eta horra nola iritsi den erakusten duen proposamena, euskal gizarteari eskainia.

Gizaberea gizakiaren sekularizazioa da, gizakia lehenbizi mundu eta materia mailan kokatzen duen antropologia. Hortaz, gizakia izaki biziduna da, organismoa, animalien erreinukoa, eta jorratzen duen edozein arlok oinarria hor dauka, hizkuntzatik politikara. Azurmendi, beraz, susmoaren filosofo legez dager. Gizakia kultura izaki da bere horretan, baina erne: tradiziozko (meta)fisikak gizakia jainkoen eskutan eta zeruan jarri zuten, eta infernua zer den erakutsi. Ortzimugen zabalkunderako, beraz, arrazoimenaren izaera biologikoa ezin da ahaztu. Izan ere, Azurmendiren aurkezpenak gizakia izadiaren ataltzat erakusten du, izaki bizidun, animalia:⁵ munduaren baitako osagai; munduari atetik begiratzen dion izaki hautatu legez ez, ordea.

Hori dela eta, atomo, zelula, neurona eta ahots artikulatua izaera daukan arrazoimenak gizakia abere hutsa dela dio: animalia bere horretan, besterik ez. Baina izaera horrek bidea zabaltzen dio gizakiari izadian, eta, Oteizaren estetikari jarraituz, gizaberea hutsik badago, betetzeko aukera dauka. Hutsik jartzea, huts egotea, beraz, cromlechetik organismo bizira, belardiaren mailan jartzea da: sekularizazioa. Ondorioz, natura eta kultura ez dira elkarren aurka jartzen; kulturak gizakia naturatik ez du atera behar, tradizioak erakutsi bezala, horretarako gaitasunik ez daukalako. Bien arteko aldea

gauza bat-bera izatean datza: izakiaren kultura-potentzia haren natura da. Hortaz, arimari gizaberearen garapen aukera eta bide deritzo, gorputzean –materia edo izadian– bertan ez dagoen atalik bereizi gabe.⁶

Frankismo aitortuaren azken urtean *Lazkano Mendizabal* ezizenez argitaratutako saiakeran, beraz, Azurmendik hurrengo urteetan egindako ekarpenentzako oinarria jarri zuen.⁷ Markoa, gainera, 2016ra arte handitu eta aberastu da. Testu honen ikergai diren lanak, hortaz, 1978tik 2009ra, haren baitan lotzen dira, eta euskal poesiatik Azurmendik emandako irudi eta ereduak aztertzeke aukera ematen dute.

Mirande: zentzu ematen

1950eko hamarkadan, euskaldunen artean kristautasunaren aurka idaztea ez zen erraza izan, hura epaitzea, Eliza edo erlijioaz gain, kultura, ohitura eta joerak kritikatzeko zelako. Mirandek (1999 II: 304-305) Etxaideri 1959ko irailaren 10ean idatzitako gutunean argi esan zuen:

Bañan ongi dakizu gure errian ez dela libertaterik ez tolerantziarik errikide geienek bezelaxe pentsatzen ez dutenentzat, batez ere fedeari, moralari ta politikari dagozkien gauzetan. Eta damu andia dut zuri esan bearrez, bañan ni ez naiz kristaua ez fedez ez moralaz. Ez uste izan nire burua besteen gandik bereizteko kristau-fedegabea egin naizenik... naiago nuke askotan zuk bezela, baitakit kristau egiazkoa zarela, fede kontsolagarri bat euki, ene itxaropen-gabearen ordez (materialisten *fedea* baño askoz itxaropen-gabea, ondikotz, ezen nik sinisten dut ispirituan, ariman, ots, psykhismuan, bañan betiko zorotasun baten jostagaillu den zerbaitengan bezela...) eta askotan apaizekin gai orretaz mintzatu naiz, aspaldi ez dela ere... bañan ezin sinistu dezaket.⁸

Lerro horiek, Azurmendik ere bilduak (1978: 19), sekularizazioaren bidean Mirandek hartutako joera erakusten dute: kristautasunetik urrun dagoen euskal izaera eta zentzuaren bila dabil, haren zorientasunaren eskutik doan itxaropena galdu arren. Mirandek, beraz, euskaraz kristautasunaren aurka idazten lehenak, euskaldunari errealitatearen sakontasuna aztertu eta benetakotasuna emateko atea zabaldu zion. Horren azpian hiru ideia eta horrenbeste pentsalari nabari daitezke: borondatea (Schopenhauer), intuizioaren indarra (Nietzsche) eta historia idazteko aukera (Spengler) (ikus Azurmendi 1978: 102, 1989a). Horrenbestez, Miranderen pentsamenduan gizakia erdigunean dago, eta euskaldunari dagokionez, Euskal Herriaren erabateko askatasuna lortzeko, berezko hizkuntza eta kultura biziberritu behar ziren, Eliza eta kristautasunetik aldendu eta paganismora itzuliz.⁹ Bigarren Mundu Gerraren osteko Parisetik Euskal Herrira so, zentzua aurkitu beharra zeukan, eta haren ereduak ziotenez, zentzua asmatu egin beharra zegoen. Miranderen sekularizazioa paganismoaren atzetik jotzea izan zen.

Nietzscheke zioenez, ezagutza arrazoimenetik bakarrik ez dator: bizipenaren unean gorputzaren zentzumen eta arimaren sentimenek hark bezainbesteko edo gehiagoko zeresana daukate. Benetako jakiturian, beraz, intuizioak indar handia dauka, eta hutsean asmatutako kontzeptuak ez. Horregatik, errealitatearen azken iturrietara heltzeko gaitasunean, arrazoimena eta materialismoa nagusi bihurtu aurreko ikuspegia lortu beharra zegoen Miranderen ustez, mitoen bidez. Baina bide horretan hasita, Homero eta

Bibliako poemetik aldendu egin behar zen, euskaldunaren antzinako arimari atzerritarrak zaizkion estetika, moral eta logikaren jabe direlako. Eliza, klasikotasun eta Ilustraziotik urrun, Barandiaranek bildutako kontakizunetara jo behar zen; euskal sen jatorrak intuizioz atzeman eta irudiz jositako ipuinetara, alegia.¹⁰ Miranderentzat, beraz, mitoak ez dira artelantzat hartu behar: narrazioari irudiak erantziz muina atera behar zaio; basajaun edo mamarroen itxuraz adierazitako bizipenak, eta horiek eratutako gizataldearen sena, hain zuzen. Hori dela eta, Miranderen muga Nietzschearena da: munduaren sakontasuna, intuitiboki –biologia eta psikologiatik– ulertzeko aukera egon arren, zentzua eta hitza ematen dituen gizakia da; ondorioz, dena irudi edo etiketa da, gizakiaren nerbio-mugimenduen fruitu den izenak ezer gutxi baitio benetako errealitateaz. Hortaz, Azurmendik idazten duenez, Mirandek bere poesian erabili edo asmatu zuen izaki mitikoen iruditeria ere ez da benetan hartu behar, gezurrezkoa baita.¹¹

Egon, hasteko, ez Jainkorik eta ez lamiarik dago, existentziaren adiera naibo batean (mendi bat dagoen edo ni nagoen bezala). Egon unibertsoa dago, eta Jainkoez eta aingeruez, edo Ortzitaz eta lamiez, mintzatzen diren kulturak unibertso horretan. Yahweh ala Ortzi, lamiak ala aingeru goardakoak, berdintsu da. Kontua azken finean da, unibertsoa nola sentidoz jutzen den gizakiaren beraren autokontzientziatik eta esperientziatik (nondik, ba, bestela?): mendietan gurutzeak jarritz, ama birjina baten santutegiak eraikiz Itziarren eta Arantzazun, erromeria lekuak zabalduz Urkiolan, ala Mariren bizilekua aitortuz Aketegin, lamiak daudela sinestuz iturrietan, ilunabarrean basajauna dabilela mendian. Mundua sentidoz jutzen da. (1978: 16)

Munduak ez du zentzurik ematen, gizakiak munduari baino. Egilea gizakia da. Zentzua edo iruditeria, ondorioz, erabatekoa ez da: cromlecha edo gurutzea eraiki berdinak ez dira. Horregatik, Miranderentzat, euskal mitoen iruditegi zaharra egin zuen herriaren sen edo jeinua aurkitu behar zen; baina, dagoeneko iradoki bezala, planteamenduak okerren bat dauka: gizakia errealitatearen barreneraino iristen bada, eta hangoa esateko han ez dagoen irudirik eratzen badu, irudi hori errealitatearen muina baino gehiago edo gutxiago da. Eta, hartzera baino, gizakia zentzua ematera behartuta badago, aurkitutakoa ezin da zentzugabekeria baino izan. Oinarri horren gainean, edozein herritako iruditegi edo mitologiak hasiera eta amaiera boterearen lerroan dauka. Era horretara, intuizioa izan arren, sinesmena sineskeria da: azalekoa, nerabea, mindua. Miranderen paganismoa, beraz, motz lotzen da.

Gandiaga: zentzu edaten

Gandiagaren lehen literatura ekarpenaz Azurmendik honakoa esan zuen: «Munduaren errealitate berri bat ari da sortzen berriro gure aroa: Modernia puskatu eta ondokoa. Hein honetan *Elorri* aktualitaterik handienekoa zen sakon-sakonki» (2009: 22). 1962an plazaratu zuen poema bildumaz, frantziskotarra Euskal Herriko egoerari erantzuten ari zitzaion, izadiaren sakontasunaren bizipenari helduz, erlijioarekin bat;¹² Mirandek ez bezala.¹³ Gandiaga, beraz, modernitatea behin eta berriz saiatzen ari den bidean aurrera egina zen, munduaren zentzua bilatuz. Baina ez zeukan hura asmatu beharrik: lurraren eta herriaren ondare apalean aurkitzen zuen. Azurmendiren hitzek honela diote:

Gaur zerbait gehiago dakigu prehistoriako jendearen erlijioaz, bizieraz; eta, batez ere, askoz gehiago nahi genuke jakin, gure jakin-mina gorria da. Geure buruak bilatzen ditugu han apika. Iragan horren bila, Gandiaga ez da joan neopaganismo baten ildotik, jainko (?) zaharrei basoihanetan aldareak ezarriz, esne eta gurin eta loreak edota odolezko hilgarriak ere haiei opaltzeko, sasiakelarre poetikoak gau festetan ospatu dituztenen bidetik are ezago. Ordea, iragan hura bere barnean egosiz, bere mentalitatean eta fede kristauan eboluzionatuz joan da, zabalduz [...] Gandiagaren prehistorismoa ez da erritu edo keinu batzuen liturgia faltsua edo estetiko soila [...] Berak egin duena, bere fedeari, zinez espiritu eta modu sanfrantziskotar batean, forma berri bat ematea izan da, esanahi berriak asmatuz, edo igarriz. (2009: 12)

Gandiagaren bidea ez da Miranderena bezala ibiltzen. Arantzazukoarena «esanahia asmatu edo igarriz» egiten da: antzinakoa, betierekoa, sekularizazioaren munduan balioan jarriz; hau da, industria, hiri, asfalto eta banakotasunaren aurrean baserri, baso, landa eta taldearen benetakotasuna nabarmenduz. Barandiaranen erronka galtzen ari zen munduaren erregistroa egitea izan zen; Gandiagarena, berriz, haren onena garai berrira egokitzea. Horregatik, igarotzen ari zen mundukotzat hartzeagatik, bere buruari ipuin iritz ziezaiokeen (2004: 82-83, 134, 142). Baina ipuina esaten den orotan berri da, zaharra izan arren, eta ikusten denaren gainera iraganeko gertaera dakar. Hobe esanda, kontakizunak uneko mundua ondare den mundu gero eta handiagoaren baitan kokatzen du. Hortaz, Nabarniz eta Arantzazutik (2004: 36) begiratu eta arnas hartzean, Gandiagak neolitotik azken baserritarrenganainoko Euskal Herriaren zabal eta sakona nabari zuen, eta bere burua haren (azken) ataltzat ikusi. Miranderentzat ez legez, antzinako izen eta ipuinek zirrara eta miresgarritasuna zekarten Gandiagarentzat: irizitakoa lurrean, mendian zein iturrian hara joanda, bertan egonda ikusten zituelako, arnas hartuz, ukituz, entzunez (Azurmendi 2009: 13). Horregatik, Azurmendik honela dio (2004: 15-16, 116):

Hitza, herriaren hitza da. Gandiaga poetak jende –iturri, lur, arbola, sasi–, herri xume horrekin bat izan gura du. Denak bezalakoa izan, denekin ibili: «Gehiengoaren pozaldi txikiz poztu, gehiengoaren neke luzetan parte hartu». Bera hori da. Herri hori da, noizean behin Gandiagaren baitan loratzen den lorea, esnatzen den txoria, haren barrutik kantari diharduena:

Ez naiz ni.
Ni, sasi besterik ez naiz.
Sasi-txoriak dihardu
nire buruz gaindi,
sasitzako loreak nire
barrentasunetik.

Gandiagaren esana, beraz, iragana orainean esana da: ezer berririk ez, berriz esatea ez bada. Izaki edo leku berari esandako hitza –izen zein ipuin– ahalik eta bete eta benetan arnastea. Zentzua asmatu beharrik ez zeukan, idatzitako hitza ezagutzen ez duten euskaldun xumeengandik entzun eta ahotan hartu baizik (2004: 8, 78, 80-81). Garai sekularraren benetako erronka, Gandiagarentzat, gutxietsi eta hiltorian utzitako maisu apalen irakaspenari egunerokoan bizitza ematean datza. Haren existentzialismoa horren minaren ondorio da, baina sinesmenik ez dio kenduko. Aitzitik, sendotu egingo dio: belaunaldiz belaunaldi iturria agortu ez delako. Horregatik, Gandiaga baikor da, natura eta kulturaren batasunean munduaren sakontasunak jainkozko edertasuna

erakusten diolako. Sustraiak etenda egon arren, kantaren batek fruitu ugariak erne ditzakeelako (2004: 134, 151), «lurrak berak irakasten diola[ko] gizon-emakumeari non aurkitu goi-agerpena» (Azurmendi 2009: 66). Gakoa, beraz, hamaika aldiz esan diren hitzen zentzua gogoan izatea da: egun, hamarkada gutxiren ondoren, bazterrean dagoena ehunka urtetan zilbor eta erdigune izan dela jakin, eta orainera egokitu (Azurmendi 2009: 8-9). Edo, hobe esanda, oraina antzinakora egokitu. Gandiagaren sekularizazioa asfaltoa baino beheragoko mailara jaitea izan zen.

Ondorioak

Azurmendiren lanek nabarmentzen dutenez, Mirande eta Gandiaga sinesmen eredu bi dira. Euskal iraganera begira, sekularizazioa besarkatutako Euskal Herriari asmo bi erakusten dizkiote. Hitzaren indarra eta munduaren sakontasuna ulertzeko bide bi, norabide bi, helburu bi. Bietan zein hobe galdera ireki utzi eta sekularizazioaren markoari goiburua jartzeko, Azurmendiren honako azken hitzak emango dira:

Zeri deritzo, ordea, sinestea? Gure mendiak, errekek, kobazuloak, ‘ipueinez’ beteak daude: Aketegiko Dama, Tartalo Harri, Olarango erreko laminak, Olaberriko Gurutze Santua, oraindik ene haurtzarora bete duten sinesteak izan dira; ordurako gure familietan guztiz ‘sinesten’ ez baziren, gutxienez ez ziren guztiz ‘ez sinesten’. Gero ere nik neuk behintzat haurtzaroko ipueinekin jantzita ikusten jarraitu dut beti Aizkorri, Olaran, Arriurdin, Sandrati, haurtzaroko paisaiak. (2009: 66)

Oharrak

1. 1981ean Koloniako egonaldian idatzia, nahiz eta 1989an argitaratu. ‘Nietzsche-ren itzal argia. Ohar orokor Miranderi sarrerakoak’ testua urte berean plazaratu zen.
2. Azurmendiren lanetatik harago, Gartzia (2016) ikus daiteke.
3. Euskal Herriari dagokionez, Eliza eta kristautasunaren zabalkunde eta orekaren lanaz jabetzeko, ikus Altuna (2003: 39-46) eta Intxausti (1996); haien gutxitzeaz, Itzaina (1999) eta Uriarte (2009); hari eskainitako indarra beste era batera bideratzeaz, Zulaika (2000 [1988]). Bestalde, erlijio edo transzendentziaren eremuaren birformulazioaz, Mentxakatorre (2015); izendaezintasunaz, Irastortza (2008). Ikuspegia mundura –Mendebalera, batez ere– zabaltzeko, Berger (1969 [1967]), Bruce (2002), Martin (2005), Milbank (2006 [1990]), Oviedo (2002) eta Taylor (2007).
4. Hurrenkera eta jarraipena hauxe da: *Gizona abere hutsa da* (1975), *Gizaberearen bakeak eta gerrak* (1991) eta *Gizabere kooperatiboaz* (2016).
5. Hori dela eta, *pizti* beharrean *abere* iriztea deigarria da, are erakargarriagoa Azurmendirengan kulturak beti etxe(ko) egiten duen gogoeta baldin badago. Gizaberearen proposamena azken hamarkadetan erdaraz egindako antropologia –Carlos Beorleguiren *Antropología filosófica* (I eta II, 2009 [1999] eta 2016) lanarekin, esaterako– eta sekularizazio azterketekin alderatzea oparora dateke.
6. Azurmendirentzat, gizakiak berezko talde izaera dauka: jaiotzaz taldera dator, talde-izaera bere baitan dago, erak eta asmoak alde batera utziz. Gizartearen uztarria, ondorioz, adostutako hizkuntza da. Horregatik, nazioaz zein kooperatibismoaz, filosofiaz zein erlijioaz aritzean, ekarpen orok atzean oinarri bat-bera dauka: gizaberea.
7. Noizean behin horri buruzko aipamen zuzenak egin zituen; Gandiagaren izaerari buruz aritzean, adibidez: «Mundua hor dagoena da, gauzen mundua, eta gauzen artean gizaberea bera» (2009: 71).
8. Azurmendik (1978: 23) *Haur besoetakoa*-ren azkeneko ataletik hartuz argi uzten du: «Otoi egin behar ote zuen? Zein jainkoari ordea?... Alferretan ez ahal ziren izanen balizkako jainkotasun bati zuzenduko

- zizkion otoitz erdi sinetsiak?... Hobe zuen Zoriaren meneko utz zezan bere burua» (1999 II: 79). Miranderen lanen atarian idatzitako Peillenen hitzek (1999 I: 11-12) hori berori nabarmentzen dute: Miranderen paganismoa ezin da erabat azalekotzat hartu, materialista hutsa ez baitzen. Ikus, ondorioz, *Nere sinestea* (1999 I: 375-376): «Ariman sinesten badut, Jainkoetan sinetsi beharko ote dut? Nere ustez, hauzi oso desberdina da. Neretzat, nere arima asko zait».
9. Ildo bera Krutwigen *Vasconia*-n (1963: 33-54; 75-88) ikus daiteke.
 10. *Euskaldungoaren etsaia* (1953) eta *Euzkadi eta Europa* (1958-59) idazkietan, kristautasunak hondatu aurreko euskaldunaren sena, Europa zaharrekoa, zein omen zen adierazi zuen: basati, bortitz eta handia, Espainia, Frantzia eta Erromaren bitartez apal, ahul eta irendua bihurtua (Azurmendi, 1978: 21; 74-83). Miranderen hitzetan: «Europa on izatea dagokigu» (1999 I: 410); «Otso, ginelarik, bildots egin gaitu» (1999 I: 423). Euskal paganismo jatorra eta kristautasun arrotzaren «kontrajarpen horretan ulertu behar dena, hortakoz, izpirituzko bi jarrera kontrarioena da, munduan egoteko eta naturan plantatzeko bi posturarena» (Azurmendi, 1989b: 120), Barojak (1986 [1922]) Ortzi eta Thor bat egitearekin adierazi zuen legez (ikus Azurmendi, 2007).
 11. 1956ko abenduaren 18an, Parisetik Mirandek Koldo Mitxelenari idatzitako gutunaren erdian, *Ortziren zaldunen gudu-kanta* aurki daiteke –*Gernikako Arbola*-ren doinuz abesteko–. Baina ereserkia amaitu bezain laster, honakoa diotso hartzaileari: «Ez duzu nire kantika hau *au pied de la lettre* hartu beharr, jakina *zintzoen* gaitziazteko egin dut soilik» (1999 II: 251).
 12. Gandiaga bakarrik ez, ordea; 21 urte zituen Azurmendik atal orori testua gehitu baitzion, *J. A. anaia* sinatuz. Poema ugari, ziurtasun osoz, 1954 baino lehen eginak ziren, Azurmendiren hitzetan (2009: 432); Miranderen aipatutako lanen garaikoak, alegia, 1950-60 tartekoak. Kortazarrek (2005: 47) gogoratzen duenez, *Elorri*-ren 1989ko bigarren argitalpenerako Azurmendiren testuak kendu egin ziren –eta Villasanteren hitzaurrea Lekuonarenak ordezkatu zuen–.
 13. Gogoan izan bedi sekularizazioa literaturara Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*-rekin etorri zela, sasoi hartan: 1957. Eleberria aipatzea ardurazkoa da, Gandiagak *Elorri*-ren 123. poema (1962: 157-160) haren egileari zuzendu baitzion. Bestalde, ikus Alvarez Enparantza (1971) eta Etxaniz (2016). Azurmendik (1965: 39) honela zioen: «Izan ere, Leturia baten kezkek, esate baterako, gutako edozeiñenak izan zitezkean. Ez dira asmatuak, ez».

Bibliografia

- Altuna, Belen (2003): *Euskaldun fededun*. Euskaldun ona izateko modu baten historia, Irun, Alberdania.
- Alvarez Enparantza, Jose Luis *Txillardegi* (1971): 'Zalantzatan dagoen apaiz horri. Erlijioa auzitan', *JAKIN* 5, 209-215.
- Azurmendi, Joxe (1965): 'Jainkoaren billa (Leturia ta Txillardegi)', *JAKIN* 20, 38-46.
- (1975): *Gizona abere hutsa da*, Arantzazu, Jakin.
- (1978): *Mirande eta kristautasuna*, Donostia, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.
- (1989a): *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, Zarautz, Susa.
- (1989b): 'Nietzsche-ren itzal argia. Ohar orokor Miranderi sarrerakoak', in Askoren artean: *Baloreak gizartean*, Bilbo, UEU, 111-152.
- (1991): *Gizaberearen bakeak eta gerrak*, Donostia, Elkar.
- (1998): 'Mirande berriro (heriotzaren 25. urteurrenean)', *JAKIN* 106, 31-43.
- (2004): 'Hitzaurre moduan', in Gandiaga (2004: 7-23).
- (2007): 'Pío Barojaren euskotasunaz. Jon Mirande', *JAKIN* 158, 123-125.
- (2009): *Azken egunak Gandiagarekin*, Donostia, Elkar.
- (2016): *Gizabere kooperatiboaz*, Donostia, Jakin. *Jakin Irakurgaiak* bilduma 47.
- Baroja, Pío (1986 [1922]): *La leyenda de Juan de Alzate*, Madril, Caro Raggio, 2. arg.
- Beorlegui, Carlos (2009 [1999]): *Antropología filosófica I. Nosotros: urdimbre solidaria y responsable*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.
- (2016): *Antropología filosófica II. Dimensiones de la realidad humana*, Madril, UP Comillas.

- Berger, Peter (1969 [1967]): *The Sacred Canopy. Elements of a Sociological Theory of Religion*, New York, Doubleday, 2. arg.
- Bruce, Steven (2002): *God is Dead. Secularization in the West*, Oxford, Blackwell.
- Etxaniz, Maider (2016): 'Joseba Leturia kalekume agnostikoa', *Uztaro* 99, 51-112.
- Gandiaga, Bitoriano (1962): *Elorri*, Oñati, Arantzazu Edizio Frantziskotarrak.
- (2004): *Adio*, Oñati eta Donostia, Arantzazu Edizio Frantziskotarrak eta Elkar, 2004.
- Gartzia Trujillo, Sebastian (2016a): 'Jon Mirande Aiphasorho: Euskal antikristoa?', in *Hamaika euskal literato eta Jainkoa*, Bilbo, EHU, 323-416.
- (2016b): 'Bitoriano Gandiaga: Judutarrekin judu, erromatarrekin erromatar, euskal herritarrekin euskal herritar?', in *Hamaika euskal literato eta Jainkoa*, Bilbo, EHU, 567-630.
- Intxausti, Joseba (1996): 'Eliza eta euskal kultura. Historia bati zenbait ohar', *JAKIN* 95, 39-63.
- Irastortza, Tere (2008): *Izendaezinaz*, Iruñea, Pamiela.
- Itzaina, Xabier (1999): 'Erljioa eta herri-nortasuna Euskal Herrian eta Quebec-en', *Uztaro* 31, 129-150.
- Kortazar, Jose Mari (2005): *Erljio gaia Gandiagaren poesian*, Bilbo, Desclée de Brouwer eta ITP.
- Krutwig, Federiko (1963): *Vasconia. Estudio dialéctico de una nacionalidad*, Paris, Miangolarra.
- Martin, David (2005): *On Secularization. Towards a Revised General Theory*, Burlington, Ashgate.
- Mentxakatorre, Jon (2015): 'Erljioaren itzulera eta mitoaren berreskuratze semantikoa', *Uztaro* 95, 37-48.
- Milbank, John (2006 [1990]): *Theology and Social Theory. Beyond Secular Reason*, Oxford, Blackwell, 2. arg.
- Mirande, Jon (1999): *Obra osoa (I-II)*, Donostia, Hiria. Arg.: Luis Mari Mujika.
- Oviedo, Lluís (2002): *La fe cristiana ante los nuevos retos sociales: tensiones y respuestas*, Madril, Ediciones Cristiandad.
- Taylor, Charles (2007): *A Secular Age*, Cambridge eta Londres: Harvard University Press.
- Uriarte, Luzio (2009): 'Euskal Herrian gizartea eta eliza', *Uztaro* 71, 87-107.
- Zulaika, Joseba (2000 [1988]): *Basque Violence. Metaphor and Sacrament*, Reno, University of Nevada Press.

JAKIN

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus